



Añorga Txikiko jai batzordeko hainbat kide. AÑORGA TXIKIKO JAIK

Bi gauetan izango dituzte kontzertuak Añorga Txikiko jaiek

Aste Nagusitik erreperatuta eta udako azken txanpan sartuta, hemen dira Añorga Txikiko jaiak. Hurrengo asteburuan ospatuko dituzte, eta ohiko jarduerekin zein berritasun batzuekin datoz.

✎ Beñat Parra Rodriguez

Auzo txikia da Añorga Txiki, baina baita bizia ere, eta horren isla dira bere jaiak: «Taldea motor txiki bat gabiltza dena koordinatzen, baina, halaber, auzoko jende asko dago gure inguruan, jaien antolaketan laguntzen eta parte hartzen, tartean gazte asko», nabarmendu du jai batzordeko kide Silvia Osese.

Gazte horietako bat da Jon Calzada batzordekidea, eta biek nabarmendu dute aurten ere «haur, gazte zein helduentzako» jarduerak antolatu dituztela irailaren 5ean eta 6an ospatuko dituzten jaietarako.

Berritasun batzuk

Bi berritasun nagusi dituzte aurten Añorga Txikiko jaiek: futbito txapelketa eta ostiraleko kontzertuak. Lehenengoari dagokionez, 18 urte inguruko auzotar talde batek antolatu duela nabarmendu dute jai batzordekoek: «Hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu, gazte-gaztetatik dabilzalako horrela gazteak jaien antolaketan. Bi egunez edukiko dugu txapelketa: ostiralekoa haurrentzako da, eta larunbatekoa, edonorentzat».

Bigarren berritasuna kontzertuei dagokiena da: «Aurten, ostiral

gauean ere edukiko ditugu kontzertuak, ez soilik larunbatean. Gainera, adin desberdinetako jendearen gustukoak izan daitezkeen taldeak edukiko ditugu ostiralean: Mr. Luken lehenengo, gero Rock Kam Broom eta gero auzoko DJ-ak. Larunbatean, iaz ere etorri zen Olgetan erromeria taldea edukiko dugu lehenengo, eta ZKN Brothers DJ-ak ondoren».

Funtzionatzen dutenak

Berritasunetatik harago, noski, urtero arrakasta izaten duten jarduerak mantendu dituzte aurten ere: «Arrakasta handia izaten du, adibidez, arratsaldeko mozorro poteoak; jende asko animatu ohi da eta dibertigarria izaten da», azaldu dute batzordekideek. Ez dira faltatuko, ezta ere, larunbat goiz-eguerdiko sagardo eta sardina dastaketa maitatua eta ondorengo tortilla lehiaketa: «Auzotar ugari hartzen dute parte, 45 inguruk; gurearen moduko auzo txiki batentzat asko da! Giro polita egoten da, lehia osasuntsu eta bizia egoten delako: askotan, familia bereko bi tortilla aurkezten dira eta euren arteko lehia egoten da, adibidez», nabarmendu dute.

Bestalde, iazko arrakasta ikusita, aurten ere mojitoak eskainiko dituzte larunbateko paella janaren ostean, alkoholunak zein alkoholik gabeak, latin zumba saioarekin. Era berean, «aspaldiko partez», txaranga batek girotuko du larunbat arratsaldeko poteoa eta auzotarrak «ilusio handiz» daude.

Ziur larunbat gaua ederki luzatuko dutela añorgatar askok, baina jai batzordekoek gogorarazi dute igandean ongietorria izango dela laguntza oro, jai gunea garbitu eta txukun uzteko: «Laguntzera etortzeko eskatzen diegu auzotarrei, eta jaietan zehar ere edozein gauzatan laguntzera animatzen ditugu». Eta, ondo pasatzera ere deitu dituzte herritarrak: «Kalera jaitsi daitezela, denontzako moduko jarduerak antolatu ditugu eta! Eta auzokoak ez direnak ere etortzera animatzen ditugu, noski, beso zabalik hartuko ditugu!». ●



OSTIRALA 5

16:30 • Ikastolan

Haurrentzako futbito txapelketa azkarra.

17:30 • Auzoko lokalean

Jaien hasierako txupinazoa.

17:45 • Ikastolako frontoian

Haur jolasak.

18:30 • Ikastolako frontoian

Txokolate jana eta IV. Haurren Bizkotxo Txapelketa.

19:45 • Auzotik

Mozorro poteo herrikoia. Gaia: musika estiloak. *Photocall*-a jarriko dute eta sariak banatuko dituzte.

22:30 • Atotxa Erreka elkartean

Mus txapelketa azkarra.

22:30 • Frontoian

Mr. Lukenen kontzertua.

23:30 • Frontoian

Rock Kam Broom taldearen kontzertua.

01:30 • Frontoian

Allen & Rosk DJ-a.

LARUNBATA 6

10:30 • Auzotik

Añorgako erraldioen eta buruhandien kalejira.

12:00 • Frontoian

Sagardo eta sardina dastaketa.

13:00 • Frontoian

Patata tortilla txapelketa.

14:00 • Frontoian

Sari banaketa.

14:30 • Frontoian

Herri bazkaria:
paella jana.

15:30 • Frontoian

Jaien aldeko bingoa.

16:00-19:00 • Parke zaharrean

Haurrentzako puzgarriak.

16:30-17:30 • Frontoian

Jaien aldeko mojitoak eta latin zumba saioa, Nahia eta Evarekin.

17:30 • Ikastolan

Futbito txapelketa azkarra.

20:00-22:00 • Auzotik

Poteo herrikoia, Gau Txori txarangak girotuta.

22:30 • Frontoian

Olgetan erromeria taldearen kontzertua.

01:30 • Frontoian

ZKN Brothers DJ-ak.

IGANDEA 7

Denok frontoia garbitzera.

Añorga Txikiko jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!

zenta

MUCHO MÁS QUE UNA ORTOPEDIA
ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

